

HAUR HEZKUNTZA GRADUA

Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea



I MODULUA
IRAKASLE FUNTZIOA

2022-2023 ikasturtea



HEZKUNTZA, FILOSOFIA
ETA ANTROPOLOGÍA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA
Y ANTROPOLOGÍA

IRAKASLETZA ERAIKINA: OÑATI PLAZA 3, DONOSTIA

Aurkibidea

| | | |
|-----|--|----|
| 1.- | Sarrera..... | 3 |
| 2.- | Moduluko lanaren bitartez garatu nahi diren kompetentziak..... | 4 |
| 3.- | Lanaren gidoia | 10 |
| 4.- | Lanaren ezaugarri formalak..... | 12 |
| 5.- | Lan kronograma | 13 |
| 6.- | Ebaluazio modua eta irizpideak..... | 14 |
| 7.- | ERANSKINAK..... | 14 |

Moduluaren koordinatzailea: Iker Iraola (iker.iraola@ehu.eus)

Moduluaren irakasle taldea:

Didaktika eta Eskola Antolakuntza: --

Hezkuntzaren eta Garapenaren Psikologia: Iker Izar de la Fuente

Hezkuntzaren Teoria eta Historia: Hilario Murua

Hizkuntzaren eta Literaturaren Didaktika: Haritz Monreal

Soziologia eta Gizarte Langintza: Nekane Larrañaga, Iker Iraola

1.- SARRERA

Jarraian irakurgai duzun dokumentu honen bidez, Haur Hezkuntza Gradu 1. mailako lehen lauhilekoan burutu behar den moduluko lana aurkezten da. Lan hau Gradu burutuko diren 5 modulu lanen artean lehena da eta *Irakasle Funtzioa* du izena. Lehen lauhilekoan dauden ikasgai guztiek osatzen dute zeregin hau:



1 irudia. Lehen ikasturteko lehen lauhilekoko irakasgaiak. Iturria: autoreek sortua.

Moduluko lana diziplinarteko lan bat da (eremu desberdinetako jakintzen arteko loturak egiteko gaitasuna lantzea du helburu). Eta bere helburu nagusia, hezkuntza errealitate desberdinen aurrean praktika edota egitasmo pedagogiko zehatzak behatuz, haien inguruko analisiak egiteko gaitasuna trebatzea da. Modulu honetan irakasle tutoreen laguntzarekin berariaz aukeratuko den gai baten inguruko lan akademikoa egin behar da; horrela, lan akademiko batek bere baitan barnebidu behar dituen elementu guztiak jasotzea garrantzitsua delarik. Esan bezala lan akademiko bat da; ikasle taldeak aukeratutako gai baten inguruan ikerketa bat burutzea izango delarik zeregina, honako elementu hauek osatu beharko dute lana: gaiaren inguruko testuinguru teoriko egoki eta pertinentea, datu bilketa eta ikerketaren nondik norakoak, emaitzak eta horien interpretazioak, ondorioak eta, azkenik, erreferentzia bibliografikoak. Lan honetan inportantea da forma, edukia eta egiten diren ekarpenak egokiak izatea.

Modu berean taldean burutuko den lan bat izango da eta garrantzitsua da lan hori talde dinamika egokian burutzea.

2.-MODULUKO LANAREN BITARTEZ GARATU NAHI DIREN KONPETENTZIAK

Lan hau talde dinamikan oinarrituko den lan prozesu jarraitu baten gisan ulertu behar dugu. Prozesua den neurrian, irakasle lanbideari dagokionean Haur Hezkuntzako Lehen mailari atxikitako konpetentziak garatuko dira. Haur Hezkuntzako lehen mailari dagozkion konpetentziak hauek lirateke:

| |
|---|
| 1.-Dibertsitate indibiduala, soziala eta kulturala aitortu eta errespetatzea. Ikaskuntza-espazioak dibertsitate-testuinguruetan diseinatu, arautu eta kudeatzea, betiere kontuan izanik ikasleen hezkuntza-premia bereziak, genero-berdintasuna, ekitatea eta giza eskubideekiko errespetua. |
| 2.-Haur Hezkuntzako eskolen antolamendua eta horren funtzionamenduak eskatzen dituen ekintzen dibertsitatea ezagutzea. Bizitzan zehar irakaskuntza-lanak hobetzen eta zientzia, pedagogia eta gizarte arloan gertatzen diren aldaketetara egokitzen joan behar duela onartzea. |
| 3.-Ikerketatik abiatuta hezkuntzak dituen kontzepzioak aztertzea eta balioestea, baita Hezkuntza Administrazioaren curriculum-proposamenak ere, hezkuntza-proiektuak eta programazio-unitateak diseinatu eta garatzeko, curriculum-a testuinguru soziokultural aldakorretara egokitzea ahalbidetuko baitu horrek. |
| 4.-Komunikazio-konpetentziak aberasteko helburua duten estrategia didaktikoak diseinatzea (ahozkoak, idatzizkoak, ikusmenezkoak, gorputzezkoak, afektiboak eta musikalak) garapen integral baten testuinguruan. |

Moduluari dagokionean berriz, hauek dira lan honen bitartez garatu nahi diren konpetentzia zehatzak:

| |
|---|
| 1.Hezkuntza guneetako aniztasun indibidual, sozial eta kulturalaren inguruan errebisio bibliografikoa talde lanean egin, desberdintasun etnikoak, klase sozialak eta genero desberdintasunak analizatuz. (1 konpetentzia) |
| 2.Gizarte eremu ezagunetako hezkuntzaren historian gertatu diren aldaketei buruzko informazioa bildu, ordenatu eta horren sintesia egin, banaka eta taldean egindako gogoetaren ondorioz gaur egungo egoerarekin konparatuz. (2 konpetentzia) |

3.Hezkuntzako erakundeetan informazioa jasotzeko **elkarrizketa-gidoiak** diseinatu, elkarrizketak burutu eta datuak analizatu, informazio emaileen ezaugarriak eta egoerak aurreikusita, elkarrizketatuarekiko harremana zainduz. (3 kompetentzia)

4.Hezkuntza jardueran esanguratsuak diren egoerak eta horiei buruzko hausnarketak aurkeztu, **bai ahoz, bai txosten idatzien bidez, testu akademikoen ezaugarri eta egituretara** moldatuz informazio erabileraren etika arauak aintzat hartuz. (4 kompetentzia)

Burutuko dugun lan honen bidez lauhilekoa osatzen duten ikasgaiak modu egokian baneratu eta horietan oinarrituta lan bat egiteko gaitasuna garatu nahi da. Unibertsitatean, ikerketak bere pisua duenez, lehen unetik beretik, ikasleak gai edota jakin-min batetik abiatu eta horren inguruan ikertzen hasteko lehen urratsa dela esan genezake.

1.- urratsa: Taldeak osatu

Lehen egitekoa taldeak osatzea izango da. Taldeak berebiziko garrantzia du, taldearen nolakotasunak gure lan prozesu osoan eragiten duelako. Garrantzitsua da, beraz, taldeak osatzeko unean hainbat irizpide aintzat hartzea. Horretarako, gogoetarako galdera batzuk proposatzen dira eta ondoren taldeak izan behar dituen ezaugarriak zehazten dira.

Gogoetarako galderak

| |
|---|
| Orain artean? |
| Nolakoak izan dira orain arte ezagutu ditudan taldeak? |
| Nola funtzionatu dute? |
| Zein dira talde lanean aritzeak sortzen dizkidan beldurrak? |
| Eta itxaropenak? |
| Zer eskain diezaioket taldeari nik? |
| Hemendik aurrera... |
| Nola funtzionatuko du taldeak? |
| Zer konpromiso hartzeko prest nago? |
| Zein konpromiso hartuko ditugu taldeko partaideok? |

| |
|--|
| (adostu eta idatzi zuen talde lana arautuko duen hitzarmena) |
| Talde lan batek elementu hauek hartu beharko ditu kontuan |
| Taldeko partaide guztiak entzun behar ditugu |
| Aukera eman taldeko partaide guztiei parte har dezaten |
| Galderak egin |
| Elkarri lagundu |
| Ideiak bata bestari azaldu eta horiek arrazoitu |

Iturria: Mercer, N., Hargreaves, L. & García-Carrión, R. (2017). *Aprendizaje e Interacciones en el Aula*. Barcelona: Hipatia. (46. orr.)

Taldearen ezaugarriak

- Taldekideen kopurua 4-5 lagunekoa izango da gehienez, ez gehiago.
- Ikasleek osatuko dituzte taldeak eta taldearen partaideak. Bestelako informazioarekin osatu behar den fitxa bete eta koordinatzaileari entregatu behar zaio (ikus 1. eranskina); bertan, talde bakoitzak gaia eta taldekide guztien izenak adieraziko ditu, beren argazkiekin. Fitxa koordinatzaileari eman beharko zaio irailaren 26ko astean. Behin izena emanaz gero taldeko lanetan parte hartzera konprometitzen dira.

Behin hori egin ondoren, talde bakoitzari irakasle-tutore bat esleituko zaio. Eta aipatu irakasle-tutorearen laguntza eta gidaritza izango du ikasle taldeak. Garrantzitsua da irakasle-tutorearekin egin beharreko bilerak prestatzea. Taldeek dokumentu honetan zehaztuta dauden epeetan tutoreak gainbegiratzeko zirriborroak aurkeztuko dituzte. Tutoreak eta ikasle taldeak gutxienez hiru lan bilera egingo dituzte prozesuan zehar: lanaren hastapenean, erdian eta amaieran.

2.urratsa: gaia aukeratu aurreko irakurketa proposamenak

Lanaren prozesuari ekin aurretik, taldekide guztiek irakurri behar dituzten hainbat artikulu eta liburu kapitulu interesgarri aurkezten ditugu, gai-atal bakoitzarekin lotura dutenak, gaia aukeratu eta kokatzeko prozesua errazteko helburuarekin (tutorearekin adostu egiteko hau):

1. IMMIGRAZIOA ETA ESKOLA

Oinarrizko irakurgaiak:

- Barquín, Amelia (2017). Euskara, generoa, klasea eta jatorria eskolan. Zenbait gogoeta, *Jakin*, 221-222, 107-130.
- Eusko Jaurlaritza (2019). *Eskola inklusiboa garatzeko esparru-plana 2019-2022*. Hemendik hartua: <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/liburua/eskola-inklusiboa-garatzeko-esparru-plana-2019-2022-plan-marco-para-el-desarrollo-de-una-escuela-inclusiva-2019-2022/>
- Imaz, Jose Inazio (2019). Kultura-aniztasuna hezkuntzan. In J.I. Imaz (Ed.), *Hezkuntzaren Soziologia* (154-160 or). Udako Euskal Unibertsitatea.

2. HAURRAK GIZARTERATZEA ESKOLAREN TESTUINGURUAN

Oinarrizko irakurgaiak:

- Taberner Guasp, José (2008). Eskola eta balioen transmisioa. Ideologia eta espiritu kritiko. In J. Taberner Guasp (Ed.), *Soziologia eta hezkuntza. Hezkuntza-sistema gizarte modernoetan: funtzioak, aldaketak eta gatazkak*. (99-119 or.). EHUko Argitalpen Zerbitzua.

3. HAURRAK GIZARTERATZEA FAMILIAREN TESTUINGURUAN

Oinarrizko irakurgaiak:

- Comellas, Maria Jesús (2009). *Familia y escuela: compartir la educación*. Graó.
- Rodrigo, Maria Jose & Palacios, Jesús (Eds.) (2001). *Familia eta giza garapena*. Udako Euskal Unibertsitatea.
- Taberner Guasp, José (2008). Hezkuntza-sozializazioa eta haren eragileak: familia. In J. Taberner Guasp (Ed.), *Soziologia eta hezkuntza. Hezkuntza-sistema gizarte modernoetan: funtzioak, aldaketak eta gatazkak*. (57-78 or.). EHUko Argitalpen Zerbitzua.

Irakurtzekoak lana hasi aurretik:

Etxeberria, Felix; Murua, Hilario; Karrera, Iñaki; Etxeberria, Juan; Setién, María Luisa; Santibáñez, Rosa; Azkona, Nerea eta Maiztegi, Kontxi (2010). Competencias específicas del profesorado con alumnado inmigrante. *Inguruak*, aparteko alea, 143-162.

Fdez. Enguita, Mariano; Mena Martínez, Luis eta Riviere Gómez, Jaime (2010). El problema del fracaso y el abandono escolar. In M. Fdez. Enguita, L. Mena Martínez eta J. Riviere Gómez (Arg.), *Fracaso y abandono escolar en España. Colección Estudios Sociales nº 29* (13-30 or.). Bartzelona: La Caixa fundazioa. Hemendik hartua http://gidid.unizar.es/viejo/chen/chaime/asigna/sistemasbienestar/textos/ENG_UITA-2010.pdf

Gordillo Gordillo, Maria; Ruíz Fernández, M^a Isabel; Sánchez Herrera, Susana; Calzado Almodóvar, Zacarías (2016). Clima afectivo en el aula: vínculo emocional maestro-alumno. *International Journal of Developmental and Educational Psychology*, 1 (1), 195-201. Hemendik hartua <http://www.redalyc.org/pdf/3498/349851776022.pdf>

Hik Hasi aldizkaria (2018, ekaina). Francesc Imbernon-i elkarrizketa. *Hik Hasi*, 299, 19-25. Hemendik hartua http://www.hikhasi.eus/Albistegia/20180618/FRANCESC_IMBERNON_Bartzelonako_Unibertsitateko_katedraduna:_Isolatutako_irakasleak_ez_du_funtzionatzen_.Talde-lana_nahitaezkoa_da._Hil_da_irakaslea;_gora_irakasle-taldea

Aukeran irakurgai:

Etxeberria, Felix; Murua, Hilario; Garmendia, Joxe eta Arrieta, Elisabete (2012). Menores Inmigrantes No Acompañados (MENA) en Euskadi y Aquitania: elaboración y puesta en marcha de un Plan de Formación para Educadores/as y Responsables. *Revista de Educación Social*, 15, 1-28. Hemendik hartua http://www.eduso.net/res/pdf/15/mena_res_15.pdf

- Murua, Hilario; Etxeberria, Felix; Garmendia, Joxe eta Arrieta, Elisabete (2012): ¿Qué otras competencias debe tener el profesorado del alumnado inmigrante?. *Magis: Revista Internacional de Investigación en Educación*, 5(10), 109-132.
- Mayorga, M^a José; Santos Guerra, Miguel Ángel eta Madrid Vivar, Dolores (2014). Formación y actualización de la función docente. *Diálogos Pedagógicos*, 12(24), 11-28.
- Fdez. Enguita, Mariano. (2004). Las funciones sociales de la escuela. In M. Fdez. Enguita (Arg.), *La escuela a examen* (27-42 or.). Madrid: Pirámide argitaletxea.
- Fdez. Enguita, Mariano; Mena Martínez, Luis eta Riviere Gómez, Jaime (2010). Las dificultades de la institución escolar en su edad tardía. In M. Fdez. Enguita, L. Mena Martínez eta J. Riviere Gómez (Arg.), *Fracaso y abandono escolar en España. Colección Estudios Sociales nº 29* (172-183 or.). Bartzelona: La Caixa fundazioa.

Oharra: EHUko berdintasun irizpideei jarraituz, egileen izen osoak emango ditugu, emakumeei zor zaien ikusgarritasuna bermatze aldera.

3. urratsa: gaia aukeratu, tutoreari proposatu eta gaiaren egokitasuna aztertu.

Irakurketak burutu ondoren, modulu honi dagokion hainbat adierazleren baitan gaia aukeratu/zehaztu beharko da. Gaiaren aukeraketak garrantzia du, batez ere ondoren diseinatu beharreko lan prozesu osoa baldintza dezakeelako. Tutorearekin kontrasteak egitea gomendatzen da.

Horiek horrela, hainbat gai orokor proposatzen dira lana egiteko, ikasle talde bakoitzak aukeratu eta horien arabera ikasgaiekin lotura egokiak eginez, lan egiteko gai bat proposatuz:

| |
|--|
| Immigrazioa eta eskola. |
| Haurrak gizarteratzea eskolaren testuinguruan. |
| Haurrak gizarteratzea familiaren testuinguruan. |

3.- LANAREN GIDOIA

Azala

Aurkibide zenbakitua

Abstract-a (euskaraz eta gaztelaniaz)

1. Sarrera (orri 1)

- Gaiaren aurkezpena.
- Zergatik aukeratu duzue gai hau?
- Zertarako egin duzue lan hau? Zein ekarpen egiten duen zuen ustez lan honek?
- Lanaren atalen laburpena.

2. Testuinguru teorikoa eta kontzeptuala (alderdi teorikoa) (5 orri)

- Gaiaren inguruko informazio pertinentea, gaian adituak direnen informazioa, besteek gai honetaz idatzi dutena.
- Aukeratu duzuen gaiak hezkuntzaren eremuan izan duen bilakaera.
- Gaia ondo kokatzen lagunduko duten kontzeptuen definizioak.
- Oso garrantzitsua da lehen mailako iturri eta erreferentzia egokiak erabiltzea.
- Horretarako informazio egokia bilatzeko bilatzaile egokiak erabili behar dira (Inguma, Dialnet, Google akademikoa, Scopus, Web of Science...).
- Iturriak behar bezala aipatu (beti ere APA arauak beteaz).

3. Metodologia (1-2 orri)

- Ikerketa-galderak eta helburuak. Ikerketa honekin zein galderari erantzun nahi diozue?
- Datuak biltzeko teknikak. Derrigorrezkoa izango da ikerketa egiteko erabiliko den teknika *elkarrizketa sakona* izatea eta talde bakoitzak bi elkarrizketa egitea (elkarrizketen transkribapenak tutoreei entregatuko zaizkie baina lanaren azken bertsioan ez dira sartuko).
- Lagina. Norengandik jaso dituzue datuak? (Beharrezko den kasuetan testuingurua ere deskribatzea komeni da)
- Prozesua. Nola egin duzue?

4. Emaitzak (5-6 orri)

- Planteatutako ikerketa-galderei erantzuteko zein datu lortu dira? (Planteatu dituzuen ikerketa galderen arabera antolatuta aurkeztu behar dituzue datu horiek).

5. Eztabaida, ondorioak eta aurrera begirakoak (5-6 orri)

Eztabaida eta ondorioak:

- Planteatutako ikerketa-galderak oinarri hartuta, marko teorikoan adituek horiei buruz esandakoak eta zuen ikerketan lortutako emaitzak alderatu, eta ondorioak atera: hau jakin nahi genuen (ikerketa-galderak), horri buruz adituek hau esaten dute (marko teorikoa), gure ikerketan hau ikusi dugu (emaitzak) eta, beraz, ondorio hau ateratzen dugu (zuen hausnarketa).

Aurrera begirakoak:

- Garatu ez diren puntuak, baina kontuan izan beharko liratekeenak etorkizunari begira gai hau lantzeko unean.
- Gaia ezagututakoan sortu diren galdera berriak.

Talde-lanaren balorazioa:

- Prozesuaren ebaluazioa talde moduan (hastapenean hartutako konpromisoen arabera).

6. Erreferentzia bibliografikoak

- Erreferentzia bibliografikoak (APA arauak jarraituta): alfabetikoki ordenatuta, sangria frantsesarekin...

7. Eranskinak

- Lana indartzeko eta osatzeko egokia izan daitekeen elementu oro (baina ez dadila betegarri soil izan).
- Elkarrizketen gidoiak ere atal honetan sar daitezke.

4.- LANAREN EZAUGARRI FORMALAK

- Luzera: gehienez 20 orriko lana izan behar du (azala, aurkibidea, erreferentziak eta eranskinak kontatu gabe).
- Letra tamaina 12.
- Letra mota: Arial, Calibri edo Times New Roman.
- Lerro-arte 1.5.
- Orri guztiak zenbakituak eta aurkibidearekin bat datozenak.
- Marjinak 2.5 zentimetrokoak izango dira eta sangriak 5 karakterekoak.

Ohar garrantzitsuak:

-Hezkuntzaren Soziologia ikasgaian, elkarrizketa teknika bezala lantzen da. Elkarrizketa sakonak ikerketarako eskaintzen duten aukera landuz eta berauek burutzeko argibideak eskainiz.

-Komunikazio Gaitasunak ikasgaian berriz, idazkera akademiko egokia burutzeko irizpideak lantzen dira. Bai eta erreferentzia bibliografikoak behar bezala idazteko zehaztasunak ere, APA arauak jarraiki. Testuen erredakzio egokiak eta berauen elaborazioak garrantzia handia dute. Unibertsitate mailako ikerketa lan baten arau eta jarraibideak bete behar dituelarik. Oso garrantzitsua da idazkera zaintzea, euskarazko formak zein edozein testu akademikorik zehazten dituen irizpideak beteaz.

Lanak edozein lan akademikorik dagokion kode deontologikoa bete behar du. Lanak erabat originala izan behar du eta bertan taldeko lanak bere isla zuzena izan behar du. Plagioa ez da onartuko eta kasu horietan lana ez da onartua izango. Bestetik, lanean zehar agertzen diren pertsonen konfidentziasuna errespetatu behar da, euren izenak edota ikastetxearenak aipatzekotan (ez da beharrezkoa), dagozkien baimenak eskatuz. Datuen Babesari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, UPV/EHUko webgune hau kontsultatu daiteke: www.ehu.eus/babestu

5.-LAN KRONOGRAMA

Lan modularra egiteko gogoratu beharreko datak honako hauek dira:

IRAILAK 12: Ikasturtearen hasiera.

IRAILAREN 19ko ASTEA: Diziplinar-teko lana (DILAN) ikasleei aurkeztu. Koordinatzaileak egingo du. Taldeak osatzearen garrantziari buruzko (talde dinamika) eta idazkera akademikoaren inguruko saio espezifikoak egingo dira.

IRAILAREN 26tik 30era bitartean taldeak osatu, gaia aukeratu eta taldeen fitxak entregatu irakasleari. Irakasle tutoreak izendatu.

URRIAK 14: Gairekin lotura duen informazio bilaketa bukatu.

URRIAK 21: Fokalizazioa. Gaia lantzeko proposatuko duzuen lehen eskema eta hori lantzeko hautatu dituzuen iturri bibliografikoak eman tutoreari.

AZAROAK 4: Egituratzea. Lanaren lehen zirriborroa eman tutoreari. Feedback prozesua.

ABENDUAK 2: Txosten idatzia entregatu tutoreari.


ABENDUAREN 12ko ASTEA: Ahozko aurkezpenak.

6.-EBALUAZIO MODUA ETA IRIZPIDEAK

Klasera etortzeko aukera dutenek moduluko proiektua egin beharko dute. Asistentzia kontrolatuko da eta gutxienez aurrez aurreko eskola orduetatik %75ean etorri behar da.

Moduluko lan bakoitzak bi atal ezberdin izango ditu: lan idatzia eta ahozko aurkezpena. Eta ikasle denek bietan parte hartu beharko dute.

Moduluko lanak 1.5 puntu balio ditu.



Moduluko lanaren puntuazioa eta irakasgaien kreditu kopurua kontuan izanda, 0.9 kreditu (hau da, 9 ordu) eskaini behar dizkio irakasgai bakoitzak moduluari.

Moduluko lanaren ahozko aurkezpenak 15 minutukoak izango dira eta bi irakasleren (tutorea eta moduluko beste irakasle bat) eta ikaskideen aurrean egin beharko dira.

Lan idatzia ere bi irakasle horiek zuzenduko dute.

Moduluko lan idatzia suspendituz gero, berriz egin beharko da azken eskola egunerako.

Etortzerik izango ez dutenek, berriz, proiektuari dagozkion konpetentziak lortu dituztela erakusteko azken froga bat egin beharko dute irakasgai bakoitzean.

Hiru irakasgai baino gutxiago dituzten ikasleek ere ez dute moduluko lana egin behar izango (hiru ikasgai edo gehiagotan matrikulatuta dauden ikasleek derrigorrezkoa dute moduluko lana egitea). Proiektuari dagozkion konpetentziak lortu dituztela erakusteko azken froga bat egin beharko dute irakasgai bakoitzean.

7.-ERANSKINAK

1 Eranskina: ebaluazioa egiteko errubrika.

| Moduloko lana | Ebaluazio irizpideak | BA I | E Z |
|------------------------------|--|---------|--------|
| Sarrera eta lanaren ekarpena | Moduluaren helburuei modu egokian erantzuten die lanak. | | |
| | Proposatu duten bibliografia egokia da, gaiarekin lotura du. | | |
| | Erabiltzen duten informazioa egokia da (aniztasun indibiduala, soziala, kulturala). | | |
| | Taldeko lana nabarmendu da. | | |
| Marko teoriko kontzeptuala | Aktualitateko gai bat mahaigaineratu dute. | | |
| | Hezkuntzako gaiei buruzko informazio esanguratsua azaltzen du. | | |
| | Marko teorikoa egoki idatzita dago. | | |
| | Apa arauak bete dira. Erreferentziak behar bezala eman dira. | | |
| Metodologia eta emaitzak | Atalak egoki landu dira. | | |
| | Elkarrizketaren gidoia elkarrizketatuaren perfilera egokituz prestatu dute. | | |
| | Elkarrizketa aurretik irakasleekin kontsultatuz antolatu dute. | | |
| | Datuen analisisa eta emaitzak egoki aurkeztu dituzte. | | |
| IDATZIZKO TXOSTENA | Txostenaren egitura egokia da. | | |
| | Proposatu duten gaia kontuan hartuz eta bilduz idatzi dute txostena. | | |
| | Ideiak ongi lotzen dituzte, argudioaren haria mantenduz. | | |
| | Txostenak izenburua eta partaide guztien datuak ditu. | | |
| | Txostenak orri guztiak zenbatuak ditu, eta aurkibidearekin bat datoz. | | |
| | Taulak eta grafikoak zenbatuak daude eta iturriak behar bezala aipatzen dira. | | |
| | Formatu arauak zorrozki errespetatu dira (luzera, letra mota eta tamaina, lerroarte). | | |
| | Txostena txukun dago. | | |
| | Testua zuzen idatzia dago (akats ortografikorik gabe). | | |
| | Idazlanean etika arauak errespetatu dira: ez da plagiatua, ez kopiatua. | | |
| | Iturriak aipatu dira APA arauen arabera. | | |
| AHOZKO AURKEZPENA | Hezkuntza jarduera esanguratsuei buruz kideen aurrean hitz egiteko gai dira. | | |
| | Edukiak adierazgarriak eta egokiak dira. | | |
| | Informazioa ondo egituratua eta antolatua dago. | | |
| | Taldekide guztiek gorputz adierazpena, ahots tonua, erritmoa eta komunikatzeko jarrera zaindu dituzte. | | |
| | Euskarri teknologikoak ondo diseinatu dira eta ondo erabili dira. | | |

2 Eranskina: ikasleen talde fitxak, koordinatzaileari emateko.

| | |
|--|--|
| Taldearen izena eta taldearen kodea: | |
| Taldea nortzuk osatzen duzuen (izena eta bi abizenak) | |
| Landuko duzuen gaia: | |
| Kontakturako posta elektronikoa erabilgarri bat: | |

3 Eranskina: moduluari buruzko ebaluazio galdetegia ikasleek betetzeko.

1. Moduluak aurreikusiak zituen konpetentziak lortu direla uste al duzue?
2. Moduluaren nondik norakoa azaltzen duen txostena aproposa dela uste al duzue? Ezer aldatuko al zenukete?
3. Nolakoa izan da ikasleen inplikazioa diziplinarteko lanean? Zergatik? (Adibidez: motibatuak egon zarete, galderak egin dituzue, tutoretzei probetxua atera diezue...).
4. Nolakoa izan da irakasleen inplikazioa diziplinarteko lanean?
5. (Adibidez: prestutasuna erakutsi dute, suertatu diren zailtasunak kudeatu dituzte, koordinatuak egon dira, komunikazioa erraztu dute...).
6. Beste lan mota bat egitea proposatuko zenuke? Zein? Edo egin duzuen lanaren inguruan hobekuntzarik planteatuko zenuke? Zeintzuk?